



Gure bihotzetan



**ALLENDE SALAZAR  
ESKOLAKO ALDIZKARIA**

**2. ALEA  
MARTXOA**

# 24.korrika



Martxoaren 19an hasi da eta martxoaren 29an bukatuko da. Euskararen aldeko lasterketa erraldoi honek Euskal Herria zeharkatuko du aurten ere.

Gure herritik ere pasatu da: Gernikatik martxoaren 26an igaro da Korrika, eta giro aparta egon da egun horretan..

Eskolan ere hainbat ekintza antolatu ditugu Korrikaren harira:

Martxoaren 4ean, AEK-ko Gorka Olaeta elkarrizketatu genuen H taldeko eta 3. Zikloko ikasleek.



**Flashmob**



Martxoaren 18an, eskolan **flashmob** erraldoi bat grabatu dugu Korrikako abestiarekin. Horretarako, ikasleek irakaslearen laguntzarekin dantza bat sortu eta ikasi dute. 2 urtetik 3. ziklora arteko ikasleek parte hartu dute ekimenean.

Eta azkenik, martxoaren 25ean KORRIKA TXIKIn parte hartu dugu. Bai herrian egindakoan zein eskolan bertan ospatutakoan.

Prest gaude euskararen alde korrika egiteko!  
Gora KORRIKA 24!



# AURKIBIDEA

- 02 24.KORRIKA
- 04 MARTXOAK 8
- 05 IPUIN LEHIAKETA
- 06 JUNE OLAZAR INTXAUSTI
- 07 ALLENDE TELEBISTA MARTXAN
- 08 ALLENDEKO ORTUA
- 09 IKASLEEN LANAK
- 22 ERRESPETUA
- 23 HAMAIKETAKO OSASUNTSUA
- 24 EGILEAK



# MARTXOAK 8


MALEN TORRE, ASTRAKO BITARTEKARIA ALLENDEN

Martxoak 8aren arira Astrako bitartekaria den Malen Torre hurbildu zitzaigun Allende irratria Feminismoaz eta asteburu hartako egitarauaz solaztera.

Allende Irratian duzue saioa osorik.



3-4D\_MARTXOAK 6



# IPUIN LEHIAKETA

Eskolan literaturarekiko zaletasuna sustatzeko asmoz, aurten ere Gernikako ipuin lehiaketan parte hartu dugu, eta gure ikasleek gogotsu hartu dute parte. LH1etik LH6ra bitarteko ikasleek beren irudimena eta sormena martxan jarri dituzte, istorio eder eta askotarikoak sortuz. Parte-hartzea oso zabala eta aberasgarria izan da, eta horrek erakusten du gure ikasleen artean irakurzaletasuna eta idazteko grina bizirik daudela. Lan guztien artean, maila bakoitzean irabazle bana aukeratu da, epaimahaiak egindako balorazioaren ondoren.

Hona hemen aurtengo saridunak:

Libe Urkidi Alaiagoikoa (LH5), Ibel Lauzirika Garcia (LH6), Ekhi Berzosa Altamira (LH3), Haizea Olalla Bilbao (LH4), Uxue Rafael Cabrera (LH2) eta Egoi Maiztegi Carballo (LH2).

Zorionak guztiei egindako lan bikainagatik, eta mila esker parte hartu duzuen guztioi!



# JUNE OLAZAR INTXAUSTI

## **ELKARRIZKETA**

### OTSAILAK 11: EMAKUME ZIENTZIALARIAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Otsailaren 11n Emakume Zientzialariaren Nazioarteko Eguna ospatzen da, eta hori dela eta, Allende Salazar eskolan bisita berezi bat izan dugu: June Olazar Intxausti. June gure eskolako ikasle ohia da, eta gaur egun Biologia Molekularra ikasten ari da unibertsitatean. Bere esperientzia eta ibilbidea gure ikasleekin partekatzeko aukera izan genuen.

Horrelako ekimenek zientziarako interesa pizten laguntzen dute, eta etorkizuneko zientzialariak inspiratzen dituzte.





# ALLENDE TELEBISTA MARTXAN!



Allende Salazar eskolan komunikazioa eta sormena lantzeko hainbat proiektu ditugu martxan. Orain arte Allende Irratia eta Zirt Zart eta Lumopetik aldizkaria izan ditugu, baina kurso honetan berrikuntza batekin gatzoz: Allende Telebista sortu dugu!



Zer aurkituko duzue?

- Ikasleekin egindako elkarrizketak.
- Eskolako jardueren inguruko erreportajeak.
- Ikasleek sortutako bideo eta grabazio bereziak.



Ikasleek egindako lanak ikusteko eta eskolako momentu bereziak gogoratzeko leku paregabea da. Animatu begiratzera!

Gozatu gure ikasleen sormenez!

# ALLENDEKO ORTUA

Allende Salazar eskolan gure ortua ere badugu, naturarekin harreman zuzena izateko eta ikasleek modu praktikoan ikasteko aukera paregabea eskaintzen duen espazioa.





Ortuaren zaintza ikasleen eta irakasleen artean egiten da. Denen artean lurra prestatu, landareak landatu eta ortua bizirik mantentzen dugu. Horrela, ikasleek naturaren erritmoak eta landareen hazkundera gertutik ezagutzen dituzte. Urteko garaian arabera, ortuan produktu desberdinak landatzen dira: garaian garaiko barazki eta landareak, naturaren zikloari jarraituz.



Ortuak ez du soilik barazkiak ematen; ikaskuntza, elkarlana eta naturarekiko errespetua ere hazten dira bertan.



# IKASLEEN LANAK



Surte

Surubok. kintga ngari  
lgitem ditugli  
Denda trokoo  
dangkagi.  
Mosthadrean produktoak  
egitem ditugli batzuk  
paperezkoak eta beste  
batzuk lanetatik  
denda (pultre) makaroidak  
indabak... zereatzen  
ditugu eta beldu.  
Kulpan: dirua geroatu  
eta jarranda kideratu.

**HH5A**

Allende Salazar  
ere korrikaren alde



Haur Hezkuntzako Umeak  
Korrikako abestaren dantza  
entseatzen hasi gara.  
ase ondo pasatu dugul!



**HH5B**

# HH 5C



kaster maletak Estre  
grammango artubulu




Portadak margatu  
ditugu

Martxoaren 27 goziorak  
hartuko ditugu.



# 1. ZIKLOA

# IPUINA



# LA PALOMA Y LA HORMIGA

Erase una vez dos hormigas.

La madre les dijo que vayan a llevar a tía un pastel y que vayan por el puente mas ancho.

Cuando llegaron fueron por el puente estrecho. La hormiga se cayó al agua.

entonces la pequeña empezó a gritar ayuda ayuda mi hermana se esta

ahogando. una paloma le escucho y le

ayudo. Cuando fueron a casa se

lo contaron a su mamá. La mamá les dijo  
que la próxima vez fueran por el puente  
ancho.

Dos días más tarde fueron y cuando  
iban por el camino vieron al cazador  
iba matar a la paloma. Entonces la hormiga  
le mordió el pie y le salió.

# 2.ZIKLOA

**OTSAILAK 27 AN ORTUAN, LANDAREAK LANDATZEN.**



**LANDAREAK UREZTATZEN.**

**ORAIN ITXARON BEHAR DUGU,  
PORRUAK HASTEKO.**

**BITARTEAN UREZTATU BEHAR DIRA  
SARRI, SARRI.**

3-4 E

## ORTUA

Otsailak 27an ortura joan ginen.



Lehenengo ikusi genituen, zeintzu landare zeuden landatuta.



Guk porruak landatu genituen. Horretarako lurrean ongarria bota genuen eta ura ere bai.



Porruak banan banan jarri behar dira lerroan.

# MARTXOAK 8



## 3-4E TALDEA

Gelan Emakumeen Nazioarteko Eguna landu genuen, gaur eguneko egoera azaldu genuen eta ondoren udaletxeak oparitutako motxilak banatu zizkiguten

# 3. Zikloa

## Gizon-emakume guztiak pertsona aske eta elkarren artean berdintzat jo eta tratatu behar dira



Kaixo ni Nahia naiz eta gizon-emakume guztiak pertsona aske eta elkarren artean berdintzat jo eta tratatu behar direla eta hitz egingo dizuet.

Gizaki guztiak berdin balio dugu ez gara inor baino gehiago edo gutxiago. Oso desberdinak gara gure artean.

Gizakiak asko gara eta modu desberdinetan maitatu, bizi eta pentsatu dezakegu.

Denak berdinak izango bagina mundua aspergarria izango litzateke. Emakume esklaboen seme-alabek aukera gehiago dituzte esklabo, aldiz erregen seme-alabek aukera gehiago dituzte errege-erreginak izateko.

Eskubiderik gabe ez gara berdin eta aske biziko.

Bestalde, bizitzeko beste pertsonen beharra dugu.


Argazki garaiko Immanuel Kant filosofoa oso famatua izan zen.

Amaitzeko, anai-arreba moduan bizitzeko gogoia esaten axolarik gabe bizitzea.



## ESKUBIDE PERTSONALAK KOMUNITATEAREN BARRUAN

Ezkontza behartu eta pertsona bat edo biak behartu egiten dituzte ezkontzeko baimenik eman gabe. 12.000.000 neskatok behartzen dituzte ezkontzen urtero. 2005an filma bat estrenatu zuten, Water izeneko zortzi urteko neskatila alargun baten istorioa kontatzen duena.



# Korrika

# Noticia

La 24 edición de la KORRIKA pasará por la comarca de Busturialdea el 26 marzo, en el marco de la 24 edición que se celebrará del 19 al 29 de marzo. La carrera organizada por AEK, con el lema “Euskara Gara” comenzará en Atharratze (Zuberoa) recorriendo todo Euskal Herria. Después de 2.175 km, acabará en Bilbao el domingo 29 de marzo.

# BIOGRAFIA



## OLATZ SALVADOR

Olatz Salvador, Donostian jaio zen 1990an. Gaur egun 35 urte ditu. Txiki-txikitatik sentitu zuen musikaren deia. Eduardo Salvador eta Iñaki Salvador musikarien alaba eta iloba da. 2010 geroztik, urte pare bat lehenago, sortu zen “Skakeitan” taldean aritzen zen teklatua jotzen eta koruak egiten, musika jaialdi ugaritan parte hartuz. 2014tik aurrera, bakarkako bideari ere ekin dio. Lagunek berak idatzitako abestiak entzutean, animatu zuten jendeaurrean erakustera. Gitarrak lagunduta, kontzertu akustikoak egin ohi ditu. Olatz Salvadorrek 23 abesti baino gehiago ditu bere musika bilduman.



**Malen Gabikaetxebarria 6B**

# HAMAIKETAKO OSASUNTSUA

Otsailaren 9tik 13ra hamaiketako osasuntsuaren astea egin dugu eskolan.

Horra hor egun bakoitzean ekarri behar zirenak eta aurrerantzean ere eredu izan ditzakegunak.

ikusgai ere, Allende telebistan, janari osasuntsua eta kirola egitearen garrantziari buruz eskolan grabatutako bideoa.



**Hamaiketako Osasuntsuaren Astea**  
**Semana del Almuerzo Saludable**

**Astelehena / Lunes**  
**Fruta freskoa**  
Fruta fresca

Sasoiko fruta freskoa edo etxeko irabiatua / Fruta fresca de temporada o batido casero

Fruta osoa edo zatitua (sagarra, udarea, platanoa, laranja...) gomendatzen da. Irabiatua bada, etxean egina eta zukua gehitu gabe.

**Asteartea / Martes**  
**Ogitartekoa edo tostada**  
Bocadillo o tostada

Ogitarteko edo tostada integrala (max 7cm) / Bocado o tostada integral (máx 7cm)

Ogia integrala eta okindegikoa izatea lehenesten da.

**Betegarriak:** gazta, urdaiazpikoa, aguakatea, tortila, pateea edo atuna.

**Asteazkena Miércoles**  
**Esnekiak**  
Lácteos

Jogurt naturala edo gazta  
Yogur natural o queso

Jogurta osoa eta azukrerik gabea, fruta zatitakin edo fruitu lehorrekin lagunduta. Gazta freskoa edo ondua ere aukera ona da.

**Osteguna Jueves**  
**Aukera anitzak**  
Diferentes opciones

Hainbat aukera osasuntsu  
Diferentes opciones saludables


Aukeratu hauetako bat: olibak+fruta, txokolate beltza (%75 min)+ogia, arrautza egosia+cherryak, edo fruitu lehorrak+fruta.

**Ostirala Viernes**  
**Hamaiketako berezia**  
Almuerzo especial


Hamaiketako berezia eskolan / Almuerzo especial en la escuela

Asteari amaiera emateko, eskolan adostutako hamaiketako berezi eta desberdin bat egiteko eguna.





Eneko Izaguirre  
Markel De beristain  
Sebastian Delgado  
Katalin Etxebarria  
Haizea Laskurain  
Mili Rios  
Gontzal Mojo  
Aielen Espinosa





Allende Salazar  
Herri Eskola